

Erikazeoen familia behin baino gehiagotan aipatu eta aztertu dugu jadanik eta ale honetan *erika* generoa hobeto ezagutzeko aukera izango dugu *Ainarra burusoila* landare ederri esker.

J. Terés



Oro har, genero horren barruan azaltzen diren espezie desberdinak zuhaiskak edo muluak dira; beren lore hermafroditak ginbail termina-

letan kokatuak dituztenak. Horren baitan, 600 bat espezie deskribatu dira, gehienak Afrikako hegoaldean; penintsulan 14 espezie eta 4 hibrido detektatu dira eta Euskal Herrian, 8 espezie ezagutzen dira. Ainarra burusoila 80 cm-tik nekez pasatuko den mulua da; zurtoin andarkatuak eta puja gazte ilegabeak dituena. Bere hostoak 4-5eko bertizilotan kokatzen diren egitura linealak, ilegabeak eta ertz errebolutuak dira. Lore-elkarteak panikula trinkoa da; korola arrosa-lila eta zenbaitetan zuria duen kanpulatua. Ekainetik urrira bitartean loratzen da eta fruitua kapsula obatu modura ematen du. Europako mendebaldean erraz aurki daiteke eta Euskal Herrian bilatuz gero, itsasoaren mailatik hasi eta Pirinioetako gailurretaraino zabaltzen da, harizti, pagadi, artadi eta karraskaletako sastrakadietan eta txilardietan. Hegoalde-rantz joz gero, urrituz joango da eta klima mediterraneoaren eraginpean dauden eskualdeetan erabat galtzen da. Gure artean aski ezaguna da ainarra; bere generokoen artean arruntena baita. Hori dela medio, landare ezaguna izanik hainbat izen desberdin ditu: *ainarra burusoila*, *txilar burusoila*, *astilarra*, *txirrintxirra*, *ginarrea*, *ilarra*, *lizarra*, *inarra*, *borozoa*, etab. Landare melifero gisa preziatua da oso eta apaingarri modura sarritan erabili izan da.



* Naturalista.

Lore-elkarte zoragarria: ainarra burusoila

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA Ainarra burusoila

Familia:	erikazeoak
Espezia:	<i>Erica vagans</i>
Banaketa:	oso arrunta
Habitata:	hainbat basotako sastrakadietan eta txilardietan
Sendabelarra:	ez

